

2017-09-26ko OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2017ko irailaren 26an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, eta Jose Ignacio Imaz Bengoechea.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Olaia Nieto Legarra, eta Mikel Gotzon Iturbe Saizar.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2017/139TIK 2017/190 DEKRETURA ARTE.

Alkateak 2017/139 dekretutik 2017/190 dekretura artekoen berri eman dio Udalbatzari.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

BIGARREN GAIA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, IRURAKO IKASTOLAREN ETA IRURAKO UDALAREN HARTEKO HITZARMENA, 2017-2018 IKASTURTEAN 2 URTEKO HAURRAK ESKOLARATZEKO.

Irurako Ikastolak bi urteko gelarako diru-laguntza eskatu ohi du urtero. Hori dela eta, Udalak hitzarmen bat sinatuko du Irurako Ikastolarekin, azken urteetan bezala.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hau onartu du:

ERABAKIA

Lehena.- Aipatutako 2017/2018 ikasturterako hitzarmena ontzat ematea arauen arabera, eta Ana Jesús Leunda Gurruchaga Irurako Udaleko alkate-lehendakariari hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

Bigarrena.- Diru-kopurua jaso aurretik, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, onuradunak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Nortasunaren egiaztatzea aurkeztea
- b) Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.
- c) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duen ziurtagiria aurkeztea.
- d) Aurkeztea, behar denean, baimendutako ordezkariak eginiko idatzia, ordaintzeko modua zehaztuz.

HIRUGARREN GAIA

KATALUNIA-REN KRISEI BURUZ MOZIO PROPOSAMENAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Bi mozio aurkeztu dira Kataluniari buruz:

-EHBildu-k aurkeztutakoa:

“Urte luzeetako prozesu baten baitan eta herritarren gehiengo baten eskaerari atak irekiz, etorkizuna libreki erabakitzeko bitarteko demokratikoz hornitu du Kataluniako herriak bere bidea. Kataluniako instituzio nagusiek herritarren nahiei bide emateko erabaki irmoa hartu dute. Katalunian herritarren borondatearen eskutik eman diren urratsek, Madrilen aldetik indarrean, mespretxuaren eta zaharkitutako legeen ustezko arrazoiarekin erantzun da.

Bide demokratikoen aurkako eraso larri honen aurrean, Irurako Udalak honako mozio hau eztabaidatu era onartzen du:

1.- Udal honek, zilegitasun osoa aitortzen dio Kataluniako Parlamentuak egingo duen autodeterminazio erreferendumari. Izan ere, libreki adierazitako herritarren borondatea da tresna politikorik eraginkorrena edozein herri edo kolektiboaren etorkizuna eraikitzeko.

2.- Udal honek, Kataluniar herriaren eta Parlament-aren erabaki burujabeen aurka Espainiar estatutik buruturiko erasoak salatu eta arbuiatzen ditu. Madrilgo Gobernuak, epaitegiak eta Auzitegi Konstituzionala ezin direlako Kataluniako herritarren gehiengo zabalak adierazitako borondate demokratikoaren gaintik jarri.

3.- Modu demokratikoan aukeratuak izan diren Kataluniako alkateak deklaratzera deitzea irmoki salatzen dugu. Demokrazia praktikan jartzea ahalbidetu nahi duten alkateak inputatzea deitoratzen.

4.- Udal honek, Euskal Herria, Katalunia edo munduko gainerako herrietan, herritarren borondate eskean oinarrituta garatzen dituzten prozesu politikoaren alde egiteko konpromisoa hartzen du.

5.- Udal honek urriaren bateko emaitza errespetatzen du eta Instituzio zein eragileei ere berdina egitea eskatzen die. Horretarako erabaki honen berri, Kataluniako Parlament-eko lehendakariari, Madrilgo Gobernuko presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Gure udalerriko herritarrei ere jakinaraziko zaie erabaki honen berri.

6.- Urriaren bateko galdeketa bitarte Udaleko balkoian estelada jartzea onartzen du Udalbatzak, Kataluniako instituzio eta herritarrei gure babesa adierazi asmoz.”

-EAJ/Pnv-ek aurkeztutakoa:

“1.- Eusko Legebiltzarrak kezka adierazi eta baztertu egiten du egitateen bidez Kataluniako autonomian esku hartzeagatik, eta Estatuko segurtasun indar eta kidegoek egindako operazio polizialagatik, zeinaren bidez erregistroak eta atxiloketak egin baitiren Generalitateko instalazioetan bere arduradun legitimoak.

2.- Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen du bertan behera utz dezala oinarritzko eta funtsezko askatasunen errepresio-estrategia, demokraziaren oinarritzko printzipioen aurkakoa.

3.- Eusko Legebiltzarrak berretsi egiten du funtsezko printzipio demokratiko guztiekiko konpromisoa, eta elkertasuna adierazten die Catalunya-ko herriari, eta baita demokraziaren aurkako errepresio politika – Espainiako Gobernuak gidatutakoa- pairatzen diharduten pertsona eta erakunde guztiei.

4.- Eusko Legebiltzarrak dei egiten du Kataluniako herriaren asmo demokratikoaren adierazpena ahalbideratzea eta erabakiak errespetatzera.”

Eztabaida ondoren eta aho batez bi mozioak onartu dira, EHBilduren mozioaren 6. puntua izan ezik.

LAUGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Ez dago ezer.

OHARRA: Eztabaida osoa “www.irura.eus udala-udalbatzak” ezarrita dago.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:50ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA